

**“EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK” EGITASMOAREN AURKEZPENA**
PRESENTACIÓN DEL PROYECTO “EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK”

2014-07-03 Donostia 03-07-2014

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, herri agintariok, herri ordezkariok, hamalau udalerritako kideok, gainontzeko, jaun-andreok lagunok denok, egun on guztioi eta mila esker zuen parte hartzeagatik, gaur ekitaldi honetara hurbiltzeagatik ere mila esker.

Zer esan handia du guretzako zuek hartu duzuen erabakia, bai Euskadi Lagunkoia Sustraietatik, ekimen horretan parte hartuz. Gaur, batez ere, ni eta hala egon naiz, entzuteko gogoz etorri naiz “Euskadi Lagunkoia sustraietatik” entzute aktiboari irekitako ate bat da-eta. Horrenbestez, ni honetakoan labur arituko naiz.

Hiru ideia nagusi azpimarratuko dut, eta konpromiso bat adieraziko.

Lehenengo eta behin, Osasunaren Mundu Erakundeak zahartze aktiboa sustatzeko emandako orientazioa da ekimen honen abiapuntua. Hau da, tokiko adierazpide bat eman diogu helburu global bati.

Bigarrenik, ekimen honek partaidetza sustatzeko borondateari eta eskaerari ere erantzuten die. Erakundeok partaidetzaren zerbitzupean gaude. Horregatik bultzatzen dugu sare asoziatiboa, eta pertsonengan jartzen dugu arreta, pertsonen partaidetzan.

Eta, hirugarrenik, egonkortu eta bultzatu nahi ditugu gure Herriak bereizgarri izan dituen balio pertsonal eta sozial batzuk.

Oso identifikatuta sentitzen naiz helburu horiekin. Esperientzia eta jakinduria behar dugu hobetzeko, aurrea egiteko, ongizatea hobetuko duten erabakiak hartzeko.

Jaurlaritzan jarrera irekia dugu, eta aukera bat. Aukera dugu, bai, ekarpen eraikitzaileak ekimen bihurtzeko: ekimen eraginkorrak, bizi-kalitatea hobetzeko.

Me siento plenamente identificado con el espíritu y los objetivos de esta iniciativa que fomenta el envejecimiento activo. Una iniciativa que parte de un

objetivo global de la Organización Mundial de la Salud, como se ha mencionado, al que damos en Euskadi una respuesta local.

Expreso también mi agradecimiento porque esta iniciativa responde a una voluntad de participación. Nos encontramos con asociaciones y personas comprometidas que demandáis hablar para aportar. Agradezco esta contribución y soy consciente de que la necesitamos. Compartimos el objetivo de favorecer unos valores personales y sociales que han distinguido a nuestro Pueblo.

Nuestra actitud es abierta y tenemos la oportunidad de convertir las aportaciones constructivas en iniciativas que funcionen, que mejoren la calidad de vida. Necesitamos vuestra experiencia y conocimiento para avanzar, para tomar las decisiones que mejoren el bienestar de las personas, de todas las personas, en estos tiempos que son, otra vez difíciles.

Ildo horretatik, utzi iezadazue gaurkotasunean ohar bat egiten. Eta zertara nator? Badauka zerikusirik ere gerora begira izan beharko litzatekeen zahartzaro ekintzaitzarekin edo zahartzaro ekimenduarekin. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatzen du ekimen hau, Osasun Sailarekin batera. Beti esan dugu gizarte-politika onena, ahal izanez gero, zahartzaroa ondo ziurtatu egiteko helburuz, gizarte politika onena enplegua sortzea dela enpleguari euzten saiatzea

Gaur, badugu pisuzko arrazoi bat esandakoa berresteko. Izan ere, Euskadin, gaur berriz ere kontratu-kopurua handituz amaitu dugu azken hilabetea. Ekaina bukatu eta 7.103 pertsona gutxiago ditugu Lanbideren langabeziaren zerrendetan. Berri on bat, pauso txiki berri bat, guztiontzat pozgarria, elkarlanaren bidea markatzen diguna guztioi.

Arlo horretan ere “Lagunkoia gogoa” behar dugu, enplegua sortzeari aplikatuta, gizarte osoak bat egiten baitu nahi horretan.

El departamento que impulsa “Euskadi Lagunkoia Sustraietatik” es el de Empleo y Políticas sociales, en colaboración con el Departamento de Salud. A los dos consejeros agradezco hoy también su presencia y acompañamiento en el acto de hoy. Siempre hemos dicho que la mejor política social es el empleo. Siempre mirando al empleo también con el objetivo de que pueda ser sostenido, de que pueda ser sostenible y que sea de calidad. Hoy tenemos una buena razón para confirmarlo.

El mes de junio se ha cerrado con un nuevo incremento de la contratación en Euskadi. Tenemos 7.103 personas menos en las listas del desempleo de Lanbide. Un nuevo paso adelante, pequeño pero constante. Vamos a seguir aportando nuestro grano de arena de manera constante. No hemos caído en el desánimo ni pecado de “exceso de pesimismo” en los momentos más difíciles y vamos a pecar menos de “exceso de optimismo.”

Esta es una buena noticia más, que nos tiene que ayudar en lo importante, en generar el clima de confianza para seguir invirtiendo, consumiendo, creciendo y también para consolidar todas las bases de lo que pueda ser un envejecimiento, positivo, activo y de calidad también en nuestra sociedad.

También en este terreno necesitamos el “espíritu lagunkoia”: cercanía, participación y trabajo conjunto para impulsar la actividad y el empleo.

Finalizo con un compromiso. Un compromiso inspirado en una palabra que expresa, que quiere expresar el espíritu que hoy hemos compartido. Quizás una palabra que ha estado en las últimas etapas o épocas desconsiderada: fraternidad. Un concepto que fue “revolucionario”, pero que hoy debemos saber actualizar y aplicar en la sociedad contemporánea y abierta en la que vivimos. Euskadi Lagunkoia sustraietatik nos ofrece esa oportunidad. Hacemos nuestro ese valor de la fraternidad como compromiso social que juntas y que juntos podemos hacer efectivo. Contamos con vuestra voluntad, contamos con vuestra experiencia y contamos con vuestra actitud.

Amaitzeko, konpromiso bat adierazi nahi dut. Gaur partekatu dugun gogoan inspiratutako konpromiso bat: lagunkoia, aipatu egin den bezela, behin eta berriz. Espero dut gogo hori gizarte osoari zabaltzeko gauza izango garela. Zuekin batera eta zuei esker egunero-egunero aplikatzeko gauza izan behar dugu. Euskadi Lagunkoia sustraietatik aukera hori ematen digu. Gure egiten dugu balio hori, elkarrekin bultzatzeko. Zuen jarrera eta laguntza eskertzen ditugu.

“Lagunkoiak” gara, baita Jaurlaritzaren izenean gaudenok eta Jaurlaritza osoa

Mila esker denoi, eskerrik asko